

IRITZI ARTIKULUA

Hamarkada miresgarria



Kepa Sarasola¹ eta
UEUko argitalpengintzako
batzordea

¹UEUko zuzendaria

Jasotze data: 2021-08-25

Onartze data: 2021-09-12

+++++

Argi eta garbi hiru izan dira azken hamarkadan UEUko argitalpengintzan izan ditugun ekarpen berritzaileenak: *Aldiri*, *Arkitektura eta abar* aldizkaria sortzea, *Osagaiz* aldizkaria sortzea eta Iker gazte kongresuko aktak lau aldiz argitaratzea.

Aldiri aldizkaria arkitektura eta inguruko gaiei buruzko euskarazko aldizkaria da, gai horretaz euskaraz argitaratzen den bakarra. 2009an sortu zen, alor horretan hutsune oso nabarmena zegoen garaian, eta UEUk argitaratu du harrezkero. Lana txukun eta formal-formal eginda Dialnet eta Latindex indexazio-zerbitzuetan sartzea lortu du aldizkariak, eta artikuluetako testuak CC-BY-SA lizentzia librearekin zabaltzen ditu.

Irakasle-ikertzaile-profesional gazteez osatutako talde batek sortu zuen 2009an. Ilusioz, ideiaz, jakintzaz eta jakin-minez beteta sortu zen, lan akademikoak euskaraz idatzi eta argitaratzeko gogoz. Lan-eremu berrian aritzen ziren, izaera berritzailea zuen taldeak, arkitekturaren unibertsitate-mailako ikerkuntza beste eremu batzuetan baino motelago garatuta zegoenez eremu hori euskaraz goldatzeko erabakia hartu zutelako.

Humanitateekin, kulturarekin, artearekin eta gizarte-zientziekin zubiak eraikitzen ditu aldizkariak arkitekturatik; besteak beste, hirigintza, artea, ekologia, paisaia, eraikuntza, geografia eta soziologia ere lantzen baititu.

Azalaren diseinua pertsona sortzaile bati (margolari, argazkilaria, paisajista...) eskatzen diote eta hari egindako elkarriketa labor bat sartzen dute zenbakian. Hainbat izan

dira orain arteko portada-egileak, besteak beste: Sahatsa Jauregi, Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum, Asier Larraza, Daniel Tamayo, Eunat Torres-Modrego, Miriam Isasi, Ainara LeGardon, etab.

Sorrera

Aldizkariaren sortzaileak Unai Fernandez de Betoño, Ibai Gandiaga, Ula Iruretagoiena eta Agurtzane Elguren izan ziren. 2009an argitaratu zuten 0 zenbakia, "Hasiberriak. Arkitekto gazteon komeriak" izenburupean, eta lehendabiziko zenbaki hartako parte-hartzaileen artean zeuden Kepa Iturralde, Maider Uriarte eta Ander Gortazar, besteak beste, ondoren erredakzio-kontseiluko parte izan direnak. Aldizkaria talde-lanaren emaitza izan da hasieratik, garai hartan baziren arkitekturazko oinarrizko liburu batzuk euskarara itzuliak (Müller-en *Arkitektura Atlas*a, Paricioen *Arkitekturaren eraikuntza*, edo Solà-Moralesen *Hiri-hazkunde motak*), baina euskarazko berezko sorkuntza bultzatu nahi zuten Aldirikideek. Eta ez soilik arkitekturaz modu ortodoxoan aritu, beste hainbat aldizkaritan egiten zen moduan, bestelako gaiei ere tartea eskaini nahi zieten eta zenbaki bakoitzean Joseba Larratxe Josevisky arkitektoaren komiki bat ere sartzen zuten.

Funtzioak


Aldizkariak aukera ematen du euskaraz egiten ari diren proiektu interesgarriak ezagutzeko (Euskal Herrikoak eta kanpokoak ere bai), eta adituekin egindako elkarriketak irakurtzeko.

Unibertsitate-mailako arkitektura-ikasketak ia osorik euskaraz ikasi ahal izatea lortu zen Euskal Herriko Unibertsitatean XX. mendearen hasieran 30 urteko ahaleginari esker, baina hutsaren hurrengoa zen euskarazko arkitektura-ikerikuntza hura aldizkaria sortu zenean, euskarazko tesi bakarra zegoen eginda garai hartan. Aldizkaria nolabaiteko hazia izan da alor horretan eta 2020an, aldizkariaren 10. urteurrenerako, euskarazko tesiak hamar ziren. Kongresuetako artikuluei dagokienez ere progresioa apur bat nabaritu da: arkitekturaz bi artikulua argitaratu ziren 2015eko Ikergazte kongresuan (M. Uriarte eta I. Otamendi), hiru artikulua 2017koan, lau artikulua Baionan antolatu zen 2019koan, eta artikulua bat aurtengoan.

Jatorrizko bertsoan euskaraz idatzitako liburugintzan, UEUren magaletik sortu dira liburu gehien-gehienak. Aldiri jaio zenean arkitekturari buruzko liburuak hiru baino ez ziren, baina aldizkariaren 10. urteurrenean 16 izatera heldu ziren.


Funtsezko ekarpena euskarazko arkitekturan

Inguma datu-basera jotzen badugu arkitekturaz eta euskaraz argitaratu dena aztertuzera, ikusiko dugu ekarpenen ia erdia (% 48) Aldiri aldizkarian argitaratu direla (ikus 1. taula). Alegia, 2020. urtera bitarte egin ziren 519 ekarpenetatik 248 aldizkari horretan argitaratutako artikulua ziren.



1. irudia ~ Arkitekturari buruzko urteko artikuluen produkzioa (Ingumaren arabera). Egilea ~ Kepa Sarasola.

Ikuspegi orokorra hartzen badugu (ikus 2. taula), Aldiri sortu aurretik batez beste urtero 4 ekarpen egiten ziren. Eta Aldiri 2009an sortu zenetik aurrera ekarpenak batez beste 38 izan ziren, horietako 22 Aldiriko artikulua izan zirela. Alegia, Aldiri sortu zenetik arkitekturaz egin den euskarazko produkzioa hamar aldiz handiagoa izan da. Hazkuntzaren erdia baino gehiago aldizkariaren eraginez gertatu da, baina aldizkariarekin batera sortu zen arkitektura-komunitateak tarte horretan urtero beste 16 artikulua/hitzaldi ere sortu ditu. Argi dago 2009an inflexio-puntu bat gertatu zela hazkuntza horretan, eta aldizkaria funtsezko ekarpena izan dela euskarazko arkitekturan.



2. irudia ~ Arkitekturari buruzko produkzioaren (batezbestekoa) 2009 baino lehen eta ondoren.

Egilea ~ Kepa Sarasola.

Esana, Aldiri. Arkitektura eta abar aldizkaria izan da azken urteetan UEUren argitalpengintzan gertatu den gauzarik handienetako bat. Belaunaldi emankor batek emaitza miragarriak lortu ditu hamarkada batean zehar. Krisia dator orain. Aldizkariak eten egiten du bere jardueran. Aldiri eragilea izan da alorrean, baina Aldiri arkitekturari buruzko euskarazko aldizkari bakarra izan zen hasieran, eta horixe izan da egoera 2021era arte. Ikergazten artikulua bakarra egon da aurtur arkitekturaz. Arkitektura euskaraz lantzeko gogoia apaldu dela dirudi.

Baina Aldirik lan egiteko prozedura bat sortu du, hor dago erreferentea. Gizartean utzi duen altxorra hor geratzen da bere webgunean eta Inguman. Ea epe erdian beste mirari bat gertatzen den, eta antzeko talde batek lekukoa hartzen duen.

Hamaika mila esker eraikuntza horretan parte hartu duzuen lagunei. Itzela da lortu duzuen.

+++

